

\*Eskolarako egindako behin-behineko bertsioa

## KEW LORATEGIAK

Virginia Woolf

Loregune obaletik ehun bat zurtoin sortzen ziren, goranzko bidearen erdialdean bihotz formako edo mihi formako hostoetan zabaltzen zirenak, eta, muturrean, kolore tantez ziprztindutako petalo gorri edo urdin edo horiak destolestu eta gailentzen ziren; eta eztarriaren ilunpe gorri, urdin edo horitik, makila zuzen bat ateratzen zen, urre hautsez pinportua eta potoloxea muturrean. Petaloak udako brisarak astinduak izateko tamainakoak ziren, eta mugitzen zirenean, argi gorri, urdin eta horiak batetik bestera pasatzen ziren, eta kolorerik trinkoenaz tindatzen zuten azpiko lur marroiaren bi zentimetro. Argia harri koxkor baten gainazal leun, grisean jausten zen, edo marrazkilo baten oskolan, bere zain marroi, zirkularrekin, edo, euri tanta batean jausita, halako bizitasun gorri, urdin eta horiaz hedatzen zituen urezko horma meheak, non batek espero zuen bertan lehertu eta desagertzea. Alabaina, handik segundo batera argiak tantari bere zilar grisera itzultzen uzten zion, eta ostu baten haragian pausatzen zen, azal azpiko zuntz hariaren adarkatzea agerian jarriz, eta berriro ere mugitzen zen eta bere distira hedatzen zuen bihotz formako eta mihi formako hostoen bobedaren peko espazio berde eskergetan. Orduan goialdean brisarak gogorxeago jotzen zuen eta kolorea gorantz hedatzen zen, uztailean Kew lorategietatik ibiltzen diren gizon eta emakumeen begietara.

Gizon eta emakume hauen figurek ibilera moteltzen zuten loregunearen ondotik pasatzean, mugimendu irregular bitxi batez, ez oso desberdina loregune batetik bestera lurra zigi-zaga zeharkatzen zuten tximeleta zuri-urdinenetik. Gizona hamabost bat zentimetro zihoan emakumearen aurretik, ibilera axolagabea, baina andrea erabakitsuago zihoan, bakarrik burua noiz edo behin jiratzuz umeak urrunegi

ez zeudela ikusteko. Gizonak gurata gordetzen zuen distantzia hura emakumearen aurretik, nahiz eta agian inkontzienteki, bere pentsamenduekin jarraitu nahi zuelako.

“Orain hamabost urte hona etorri nintzen Lilyrekin”, pentsatu zuen. “Hemendik jesarri ginen laku baten ondoan, eta nirekin ezkontzeko erregutzen egon nintzaion arratsalde osoan. Zelan ibiltzen zen sorginorratza gure inguruan jiraka: zein argi ikusten dudan sorginorratza eta haren zapata, belarri karratua puntan. Berbetan egon nintzen denbora guztian zapata ikusten nuen, eta ezinegonaz mugitu zuenean, gora begiratu barik jakin nuen zer esango zuen: bazirudien haren izate osoa zapatan zegoela. Eta nire maitasuna, nire desira, sorginorratzean zegoen; zeozergatik pentsatu nuen han pausatzen bazen, hosto hartan, erdian lore gorria zeukan zabal hartan, “Bai” esango zuela segituan. Baina sorginorratzak jiraka eta jiraka jarraitu zuen: ez zen inon pausatu —jakina ezetz, zorionez, ze bestela ez nintzateke hemen egongo Eleonorrekin eta umeekin paseatzen— Esan, Eleanor. Pentsatzen ahal duzu inoiz iraganean?”

“Zergatik galdetzen duzu, Simon?”

“Iraganaz pentsatzen egon naizelako. Lilyz pentsatzen egon naiz, emazte izan ahalko nukeen emakumeaz... Zera, zergatik zaude isilik? Axola zaizu nik iraganaz pentsatzea?”

“Zergatik axolako zait, Simon? Ez al du batek beti pentsatzen iraganaz lorategi batean, gizonak eta emakumeak zuhaizpetan daudela? Ez al dira horiek baten iragana, haren hondarrak, gizon eta emakume horiek, zuhaizpetan dauden mamu horiek, ...baten zoriona, baten errealitatea?”

“Nireztat, zapata baten zilarrezko belarri karratu bat eta sorginorratz bat...”.

“Nireztat musu bat. Imajinatu sei neskato mihiseen aurrean jesarrita orain hogeitun urte, laku baten ertzean, nenufareak pintatzen, nik sekula ikusitako lehen nenufare gorriak. Eta bat-batean musu bat, hor, idunearen atzean. Eta eskua dardarka izan nuen arratsalde osoan, ezin nuen pintatu. Erlojua atera nuen eta erabaki nuen zein ordutan utziko nion neure buruari musuaz pentsatzen, bost minutuz baino

ez... hain zen preziatua... ile urdineko andre zahar baten musua —garatxo bat zeukan andreak sudurrean— nire bizitza osoko musu guztien ama. Etorri Caroline, etorri, Hubert”.

Loregunearen ondotik pasatu ziren, ez laurak parean, eta laster haien figurak txiki egin ziren zuhaitzen artean eta erdi garden azaldu ziren, argia eta itzala haien bizkar gainetan lerratzen zirela orban dardarati irregularretan.

Loregune obalean marrazkiloa —oskola minutu pare batez-edo gorritz, urdinez eta horiz tindatua izan ondoren— pittin bat mugitu-edo egin zen oskolean, eta gero lur puska solteetan gora ekin zion, gainetik igaro ahala lur zatiok apurtu eta amiltzen zirela. Bazirudien helmuga garbi bat zeukala, eta horretan bereizten zen bere aurrean beste aldera gurutzatzen saiatu zen intsektu hanka luze, angular eta bereziarengandik, zeina segundo batez zain geratu zen, antenak dardarka erabakitzen bezala, eta gero arintasun eta bitxitasun berberaz aldendu zen kontrako bidetik. Muino marroiak, magaletan laku berde sakonak zituztenak, ezpata lako arbola zapalak, sustraitik puntaraino astintzen zirenak, harri grisezko horma biribilak, testura mehe eta hauskorreko gainazal zimurtu itzelak... objektu horiek guztiak zeuden marrazkiloaren bidean zurtoin batetik bestera, helmugaraino. Artean erabaki barik zeukala hosto ximel baten karpa inguratzea ala gainetik pasatzea, beste gizaki batzuen oinak pasatu ziren loregunearen ondotik.

Oraingoan gizonak ziren biak. Bietan gazteenak baretasun apika ez-naturala ageri zuen aurpegian; bere lagunak berba egiten zuen bitartean begiak jaso eta aurrean oso irmo tinkatzen zituen, eta lagunak berbetan amaitu bezain laster, behera begiratzen zuen berriro eta batzuetan ezpainak irekitzen zituen, isilune luze baten ostean baino ez, eta beste batzuetan ez zituen ireki ere egiten. Gizon zaharrak ibiltzeko metodo bitxia zuen, gorabeheratsu eta dardaratia, esku bat aurrera botaz eta burua bat-batean goratuz, etxe baten aurrean itxaroten nekatuta ezinegonez mugitzen den kotxe zaldiaren nahiko antzera; baina gizonarengan keinuok zalantzatiak eta zentzugabeak ziren. Ia gelditu barik

mintzo zen; bere baitarako irribarre egin eta berriz hasten zen berbetan, irribarrea erantzuna izan balitz bezala. Ispirituez zebilen... hildakoen ispirituez, zeinak, gizonaren arabera, une hartan bertan era guztietako gauza xebreak kontatzen zebilzkion Zeruko esperientziez.

“Antzinatekoek Zeruari Tesalia esaten zioten, William, eta orain, gerra honekin, ispirituzko materia muinoen artean dabil joka trumoiak bezala”. Isildu zen, entzuten bezala geratu, irribarre egin, buru astindu bat jo, eta jarraitu zuen:

“Bateria elektriko txiki bat daukazu eta goma zati bat kablea insolatzeko —Insolatu? Isolatu?—, tira, utziko ditugu xehetasunak, zertarako sartu xehetasunetan ez badira ulertuko, eta, labur esanda, makinatxoa toki eroso batean jartzen da ohapuruaren ondoan, esan dezagun kaobazko mahai txukun batean. Langileek nire zuzendaritzapean dena behar bezala atonduta, alargunak belarria ezartzen du eta ispirituari deitzen dio adostutako keinuaz. Emakumeak! Alargunak! Beltzez jantzitako emakumeak...”.

Hemen andre baten soineko beltza ikusi bide zuen urrunean, beltz-more ageri zena itzalean. Kapela kendu zuen, eskua bihotzean jarri, eta harengana abiatu zen sukarrak hartua bezala berbak murduskatuz eta keinuak eginez. Baina Williamek mahukatik oratu zion eta lore bat ukitu zuen makilaz, gizonaren arreta desbideratzeko. Nahastu xamar une batez loreari so egin eta gero, gizonak belarria hurbildu zion eta, bertatik zetorren ahots bati erantzunez bezala, Uruguaiako basoez hasi zen berbetan, ehundaka urte lehenago bisitatu baitzituen Europako neskarik ederrenarekin. Entzuten zitzaion murduskatzen Uruguaiako basoez, larrosa tropikalen argizarizko petaloez estaliak baitzeuden, urretxindorrez, itsasoetako hondartzez, itsas lamiez, eta itsasoan hildako emakumez, bitartean uzten ziolarik Williampi bera eramaten, gaztearen aurpegian pazientzia estoikoa pixkanaka gero eta markatuago egiten zela.

Haien atzetik, gizon zaharraren keinuez zurtu xamar egoteko bezain gertu, maila ertain-behereko bi andre nagusi zetozen, bata sendo eta pisua, bestea masail gorri eta arina. Beren mailako

gehienak legez, zinez liluraturik geratzen ziren burmuin asaldatu bat salatzen duten xelebrekerien edozein zantzurekin, batez ere jende izandunarengan ikusiz gero; baina urrunegi zeuden ziur jakiteko keinuak xelebreak besterik ez ziren ala benetan zoroak. Une batez gizon zaharraren bizkarra isiltasunean ondo aztertu eta elkarri begiratu bitxi, maltzur bat bota eta gero, aurrera jarraitu zuten beren elkarrizketa konplikatu askoa elkarrekin kementsu osatzen:

“Nell, Bert, Lot, Cess, Phil, aitxe, diosta, diotsat, diosta, diotsat, diotsat, diotsat...”.

“Bert gurea, Sis, Bill, aitita, agurea, azukrea,

Azukrea, irina, sardinzarra, barazkiak,

Azukrea, azukrea, azukrea”.

Andre pisuak, hitz jasaren saretik zehar, so egin zien loreei —fresko, irmo, zut lurrean— espresio bitxi batez. Ikusi zituen hala nola sonambuloak lo sakonetik itzartzean brontzezko argimutilla ikusten duen argia modu ezezagunean zabaltzen, eta begiak itxi eta irekita, eta brontzezko argimutilla berriz ikusita, azkenean guztiz itzartzen den eta so egiten dion argimutillari bere ahal guztiarekin. Halaxe geratu zen emakume astuna geldigeldi loregune obalaren aurrean, eta utzi ere egin zion beste andreak zioena entzuteko itxurak egiteari. Hantxe geratu zen hitzei bere gainera erortzen uzten, gorputzaren goiko erdia astiro aurrera eta atzera kulunkatuz, loreei so. Gero proposatu zuen jesartzeko toki bat bilatzea tea hartzeko.

Marraskiloak aztertuak zeuzkan bere helmugara heltzeko metodo posible guztiak hosto hila inguratu edo igo barik. Hostoa igotzeko behar zen ahalegina alde batera utzita, zalantza zuen testura mehe hark, halako zalaparta asaldagarriaz dardar egiten zuenak adarren puntaz ukitze hutsarekin, haren pisua jasango ote zuen; eta horrek azkenean eraman zuen deliberatzera haren azpitik arrastaka pasatzea, bazegoelako gunek bat zeinetan ostoa behar beste zubitzen zen berantzako tokia uzteko. Burua sartu

berria zuenean irekiduran eta sabai marroi altuaren neurria hartzen eta argi marroi freskoarekin ohitzen hasia zegoenean, beste bi pertsona pasatu ziren ondotik, kanpoko lurrean. Oraingoan biak ziren gazteak, gizon gazte bat eta emakume gazte bat. Gaztaroaren hasieran zeuden biak, edo are gaztaroaren hasieraren aurreko sasoiari, lorearen tolestura arrosek beren ontzi biguna lehertu baino lehenagokoa, tximeletaren hegala, guztiz hazita egon arren, eguzkitan geldirik dauden sasoiak.

“Ze suertea, ostirala ez izatea”, esan zuen mutilak.

“Zergatik? Suertean sinesten duzu ala?”

“Sei penike kobratzen dute ostiraletan”.

“Eta zer da sei penike? Ez du merezi sei penike?”

“Zerk? ...Zer da merezi duen hori?”

“Ezer ere ez ...esan gura dut... badakizu zer esan nahi dudan”.

Iruzkina hauetako bakoitzaren ostean isilune luzea etorria zen; ahots atono eta monotonoetan esanak ziren. Bikotea geldi geratu zen loreguneari ertzean, eta elkarrekin neskaren goardasolaren muturra inkatu zuten sakon lur bigunean. Ekintzak, eta mutilaren eskua neskarenaren gainean egoteak, haien sentimenduak adierazi zituzten modu estrainoan, berba labur hutsal horiek ere zerbait adierazten zuten bezala, hego laburreko berbak beren esangurazko gorputz astunerako, desegokiak neska eta mutila urrun eramateko, eta, hortaz, modu aldrebesean lurreratu zirenak bien inguruko objektu arruntetan, eta hain itzelak zirenak gazteen ikutu esperientzia gabearentzat; baina nork daki (pentsatu zuten goardasola lurrean inkatzen zuten bitartean) zein amildegia ez ote den ezkututzen haien atzean, edo zein izotz malda ez ote dagoen beste aldean eguzkipean distiraka? Nork daki? Nork ikusi du hau inoiz? Neskak galdetzen zuelarik ere zelako tea ematen ote zuten Kewn, mutilak sentitu zuen zerbait zetorrela haren hitzen atzean, itzel eta solido jaikitzen zen zerbait; eta lainoak astiro-astiro jaso eta agerian utzi zuen —ai, Jesus, zer ziren forma horiek?— mahaitxo zuriak, eta andrazko zerbitzariak,

lehenago neskari eta gero mutilari begiratzeko zietenak; eta kontu bat, mutilak ordainduko zuena bi txelineko benetako txanpon batekin; eta benetakoa zen, dena benetakoa, ziurtatu zion mutilak bere buruari, txanpona hatzamarrez ikutuz patrikan, benetakoa mundu guztiarentzat, salbu eta berarentzat eta neskarentzat; berari ere hasi zitzaion benetakoa iruditzen; eta orduan ...baina hura kilikagarriena zen hor jarraitzeko zutik pentsatzen, eta mutilak goardasola lurretik atera zuen tirakada batez, ezinegonik jendearekin tea hartzen zen tokia bilatzeko, jendeak bezala.

“Etorri, Trissie; bada garaia tea hartzeko”.

“Non hartzen da tea baina?” galdetu zuen neskak pozezko zirrara ezin bitxiagoa ahotsean, inguruetara lausoki begiratu eta bere burua eramaten utziz belarrezko bidean behera, goardasola dandarrez, burua batera eta bestera jiratu, tea ahaztuz, horra behera eta gero hara behera joan guran, orkideak eta lertxunak gogoratu baso loreen artean, pagoda txinatarra eta gangar gorriko txori bat; baina mutilak aurrera eraman zuen.

Horrela, bikote bat bestearen ostean oso antzeko mugimendu irregular eta xedegabeaz pasatu ziren loregunearen ondotik eta lurrin berde urdinezko geruza eta geruzatan bildu ziren, non hasieran haien gorputzek bazuten substantziarik eta kolore tindi bat, baina gero bai substantzia eta bai kolorea aienatu ziren egurats berde urdinean. Ze bero zen! Hain bero non zozoak ere erabaki baitzuen jauzi egitea, txori mekaniko baten gisan, loreen itzalera, mugimendu baten eta hurrengoaren artean eten luzeak eginez; noraezean hara-hona ibili beharrean, tximeleta zuriek dantza egiten zuten batak bestearen gainetik, beren maluta zuri higikariez marmolezko zutabe apurtuaren ziluetan eginez lore altuenen gainetik; palmondo etxearen kristalezko sabaiek distira egiten zuten, euritako berde dirdaitsuz betetako merkatu oso bat zabaldu balute bezala eguzkipean; eta aeroplanoaren burrunban udako zeruaren ahotsak bere arima betizua xuxurlatu zuen. Hori eta beltz, arrosa eta elur zuri, kolore horietako guztietako formak, gizonak, emakumeak eta umeak segundo batez antzeman ziren

ortzemugan, eta gero, belarraren gaineko azalera horia ikusita, amore eman zuten eta zuhaizpera joan ziren itzal bila, ur tantak bezala disolbatuz egurats beilegi eta berdean, hura gorriz eta urdinez tindatuz xumeki. Bazirudien gorputz baldar eta astun guztiak beroan hondoratuak zirela mugitu ezinik eta lurrean pilatuta zeutzala, baina ahotsak dardarati ateratzen ziren haiengandik kandelen argizarizko gorputz sendoei darizkien sugarrak balira bezala. Ahotsak. Bai, ahotsak. Hitzik gabeko ahotsak, isiltasuna bat-batean apurtuz halako poztasun sakonaz, halako desira grinatsuaz, edo, umeen ahotsetan, halako freskotasun harrituaz; isiltasuna apurtuz? Baina ez zegoen isiltasunik; denbora osoan omnibusak gurpilak jiratzen zebiltzan eta martxak aldatzen; kutxa txinatarren sorta erraldoi baten eran, denak altzairu forjatuzkoak eta etengabe jiraka bata bestearen barruan, hiria murmurioka zegoen; eta haren gainetik ahotsek ozen egiten zuten alauri eta kontaezinezko loreen petaloek beren koloreak jaurtitzen zituzten airera.